

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**106/2019 Foru Agindua, apirilaren 5ekoa, onesten duena Izaskun García Zorzano izendatzea Eltziegoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko, haren titularra erretiratu delako**

Eltziegoko Udalak Arabako Foru Aldundi honi jakinarazi dionez, 2019ko apirilaren 2an Armando Blanco Martínez, idazkari lanpostuaren titularra, erretiratu egin zen, eta, ondorioz, lanpostua hutsik geratu zen.

Hori dela eta, Eltziegoko Udalak iragarki bat argitaratu zuen 2019ko otsailaren 15eko ALHAOn (20. zk.), gaikuntza nazionaleko funtzionarioek eskaerak aurkez zituzten bost egun balioduneko epean, lanpostu hori behin-behineko izendapen bidez, eginkizun metaketaz edo zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Udal interesdunak jakinarazi du udal horretako idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko eskaera egin duela Izaskun García Zorzanok, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioak eta Lantziego-Bilar-Kripango udal elkartearen idazkari lanpostuko titularrak.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 51. artikulua honako hau xedatzen du:

“1. Autonomia erkidegoetako organo eskumendunek zerbitzu eginkizunak egiteko aukera emango diete haien lurraldean destinoa daukaten gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioei, lurralde barruan zerbitzuak eman ditzaten, azpieskala berean nahiz desberdinean, toki erakundeetan haientzat gorderiko lanpostuetan, gehienez ere urtebeteko epean (beste urtebetez luzatu ahalko da), baldin eta ezin izan bada behin-behineko izendapen bat egin, eta ezintasun hori nahikoa egiaztatuta gelditu bada espedientean.”

Arabako Foru Aldundia da zerbitzu eginkizunen izendapenak egiteko erakunde eskuduna Arabako Lurralde Historikoan, 128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Errege Dekretu horren 51. artikulua beraren 4. apartatuak hau ezartzen du:

“4. Aurreko kasu guztietan administrazio interesdunak eskatuko du zerbitzu eginkizuna, eta funtzionarioak zerbitzuak ematen dituen erakundea ados egon beharko da”

Eltziegoko Udalak eskaera igorri du eskatzeko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko izenda dadila Izaskun García Zorzano, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa eta Lantziego-Bilar-Kripango udalen elkartearen idazkari lanpostuko titularra, 2019ko apirilaren 8tik aurrerako ondorioekin.

Eskaerarekin batera, García Zorzanoren idazki bat bidali du, zeinetan hark adierazten baituen ados dagoela lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzearekin, eta Lantziego-Bilar-Kripango udal elkartearen idazki bat ere helarazi du, zeinek zerbitzu eginkizun horren aldeko txostena eman baituen.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eltziegoko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko izendatzea Izaskun García Zorzano, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa eta Lantziego-Bilar-Kripango udal elkartearen idazkari lanpostuko titularra, 2019ko apirilaren 8tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen hori gehienez ere urtebeterako izango da.

Epe hori beste urtebetez luzatu ahalko da, baldin eta egiten den hurrengo baterako lehiaketan ez bada izendatzen lanpostuaren beste titular bat.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Eltziegoko Udalari eta Eusko Jaur-laritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 5a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**